

LIZITAZIOAREN AURRETIAZKO IRAGARKIA

**EUSKADIKO HIDROKARBURUOAK SOZIJETATEAK, S.A.
DEITUTAKO LEHIAKETA, PROZEDURA NEGOZIATUAZ
ESLEITZEARI BEGIRA, ARMENTIA 2 IZENEKO
HIDROKARBURUOEN ESPLORAZIOAREN ZUNDAKETAREN
ZULAKETA, IRAUPEN LABURREKO PROBAK (DST) ETA
OSAKETA**

ESPEDIENTE ZENB.:

SHE/16/002

**PROZEDURA NEGOZIATUA
LIZITAZIOAREN IRAGARKIAREKIN**

ESPEDIENTE ZENB.: SHE//16/002

1. KONTRATUAREN HELBURUA ETA BANAKETA LOTETAN

- Armentia 2 hidrokarburoen esplorazioaren zundaketan zulaketa, iraupen laburreko probak (DST) egiteko eta, hala badagokio, osaketa gauzatzeko zerbitzuez eta beharrezko materialez hornitzea. Kontratua soil-soilik esleituko da proiektu integratuko kudeaketa-kontratu moduan «*Integrated Project Management*» kontratatzaile bakarrari. Nahiko gaitasun teknikoa duten lizitatzailleek parte hartzeari begira, eskariak bidaltzeko eta eskaintzak egiteko oinarritzko dokumentu teknikoa honako helbide honetan dago <https://cloud.eve.es/index.php/s/V4yiFBzi4IS3zhr> (3. eranskina).

CPV: 76310000

- Ez dago banaketarik lotetan.

2. ERAKUNDE KONTRATATZAILEA ETA KONTRATATZAILEAREN PROFILA

EUSKADIKO HIDROKARBURUOAK SOZIJETATEA, S.A., aurrerantzean SHESA, honako helbide hau duena: Bizkaia plaza eraikina. Urkixo zumarkalea, 36 – 1. solairua. 48011 Bilbo. Bizkaia.

- I.F.Z.: A-48149462
- Pertsona arduraduna, teknikaria: Javier Valdes. jvaldes@eve.es
- Telefonoa/faxa/posta elektronikoa: +34944035600 / +34944035699 / shesa@eve.es
- Kontratatzailearen profila:
www.shesa.es
www.eve.es
<http://www.contratacion.euskadi.eus/w32-1081/es/v79aWar/comunJSP/v79aCambioldioma.do?idioma=es>

3. KONTRATUA PRESTATZEKO ETA ADJUDIKATZEKO ARAUBIDE APLIKAGARRIA ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA

Kontratua prestatzeko eta adjudikatzeke araubide aplikagarria eta jurisdikzio eskuduna honako hauek dira:

- Araubide aplikagarria: Urriaren 30eko 31/2007 Legea, ur, energia garraio eta posta zerbitzuen alorretako kontratazio prozedurez diharduena (31/2007 Legea).
- Jurisdikzio eskuduna: Administrazioarekiko Auzia (108. artikulua, 31/2007 Legea). Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratuen Errekurtsoen Organo Administratiboa izango da eskuduna azal litezkeen erreklamazio eta gaien inguruan, 31/2007 Legearen 101. artikulua araber.

4. AURREIKUSITAKO KONTRATUAREN BALIOA

- Aurreikusitako kontratuaren balioa: 27.000.000 € (BEZik gabe).

5. ADJUDIKATZEKO ERA, TRAMITAZIOA ETA ARAUDI APLIKAGARRIA

- Prozedura negoziatuaz, aurretizko lizitazioaren iragarkiarekin.
- Ohiko tramitazio.
- 31/2007 Legearen 58. artikulua eta jarraian datozenak.

6. PARTE HARTZEKO ESKAERAK JASOTZEKO EPEA

Parte hartzeko eskabideak (A gutun-azala) 2016ko abenduaren 12ko hamabiak (12) arte, CET (Europako Ordu Zentrala), jasoko dira.

7. PARTE HARTZEKO ESKAERAK AURKEZTEKO LEKUA

SHESAREN helbidera bidaliko dira eskabideak edo eskaintzak, goraxeagoko 2. atalean adierazitako helbidera, edo posta elektronikora.

8. GAUZATZEKO LEKUA ETA AURREIKUSITAKO EPEA

- o Epea: Kontratuaren helburuan (1. atalean) azaltzen diren lan guztiak aurrera eramateko aurreikusten den epea 170 egunekoa da. Adjudikaziodunak ahalik eta lasterren hasiko da lanak egiten (bi hilabete inguruko epea aurreikusten da), SHESAK horretarako egingo dion jakinarazpenaren biharamunetik kontatzen hasita, eta azalduta SHESAK dagozkion baimen guztiak eskuratuta edukiko dituela, eta, beraz, lanari ekiteko aukera egonik.
- o Lekua: Arabako Subijana parajea, Vitoria-Gasteiz udalerrian dagoena, 4 Poligonoa, 95 lursaila, C azpilursaila (NUTS: ES211).

9. PUBLIZITATEAREN GASTUAK ETA ZENBATEKOA

Ez da kontuan hartzen publizitate gasturik.

10. PARTE HARTZEKO ENPRESEN AUKERAKETARI BEGIRAKO IRIZPIDEEN INGURUKO DOKUMENTAZIOA (A GUTUN-AZALA)

Agiri edo dokumentu honetako 3.3.3 atalean adierazten den dokumentazioa aurkeztu behar dute lizitzaileek.

11. ENPRESAK ETA ADJUDIKAZIOA AUKERATZEKO IRIZPIDEAK

- Enpresak aukeratzeari begira, (gutxienez hiru, baldin badira), lehiaketan parte hartzera gonbidatuak izango direnak, honako irizpide hauek balioetsiko dira:

Irizpidea	Deskribapena
A gutun-azala. Parte hartzeko enpresak aukeratzeko irizpideak	
1	Esperientzia arloan, horrelako proiektu integratuetan
2	Giza baliabide eta bitarteko material propioen atxikipena, azpikontratatuaren aldean

- Bestetik, kontratua adjudikatzeari begira, Erakunde Kontratzaileak izango duen oinarrizko irizpidea eskaintza ekonomiko onuragarriena edo abantailatsuen da (31/2007 Legearen 60. artikulua), Klausula Administrazioen eta Zehaztapan Teknikoaren Agiria edo Pleguan zehaztuko diren balorazio irizpideen eta beren kuantifikazioaren arabera. Aukeratuak diren lizitzaileei bidaliko zaie agiri hori, proposamenak aurkez ditzaten.

12. LUZAPENAK

Ez dagokio.

13. PREZIOAREN ORDAINKETA. PREZIOEN BERRIKUSPENA

Klausula Administrazioen eta Zehaztapan Teknikoaren Agiria edo Pleguan zehaztuko diren aspektuen arabera, aukeratuak diren lizitzaileei bidaliko zaienta, proposamenak aurkez ditzaten.

14. IRAGARKIA DOUE-RA AURRETIAZ BIDALTZEKO EGUNA

2016ko azaroaren 11.

15. PARTE HARTZEKO ESKAERAREN INDARRALDIA

Lizitzaileek parte hartzeko eskaerari hamabi (12) hilabeteko gutxieneko epean eutsi beharko diote, proposamena aurkezten duten egunetik kontatzen hasita.

OINARRIZKO BALDINTZAK

1. XEDAPEN OROKORRAK

1.1. Erakunde kontratatzailea

Erakunde kontratatzailea (aurrerantzean “**Erakunde Kontratatzailea**”) Agiri honetako karatularen 2. atalean adierazten da; eta haren datuak, helbidea eta telefonoa atal horretan ere azaltzen dira.

1.2. Kontratuaren araubide juridikoa eta auziak konpontzea

Araubide juridikoa: Lizitazio honen kontratuak izaera pribatua du. Kontratuaren prestatze eta esleitzeari dagokionez, lizitazioaren iragarki honetan, Klausula Administratiboen eta Zehaztapen Teknlkoen Agiria edo Pleguan eta karatulako 3. atalean adierazten dena beteko da.

Kontratuaren betetze eta deuseztatzeari dagokion araubidea zuzenbide pribatuarena izango da, Espainiako legeriari jarraiki, API/ISO sektorearen arauen arabera eta aplikagarriak izan daitezkeen EBko zuzentarau edo direktibak kontuan hartuta (gai kimikoi aplikagarria den lotutako REACH erregelamendua, adibidez).

Auziak konpontzea: Kontratu honen prestatze eta esleitzearen inguruen sor daitezkeen auziak erabakitzeke eskudunak karatulako 3. atalean adierazten dena kontuan hartuko da.

Era berean, alde artean gerta litezkeen auziak konpontzeari begira, kontratuaren betetze, ondorio eta deuseztatzeari dagokion araubidea zuzenbide administratiboaren arbitrajea izango da, hautatuko den arbitro bakar batez, Bilboko Merkataritza Arbitraje Auzitegiaren erregelamenduaren arabera, erregelamendu horren arabera aukeratuko den arbitro baten (1) bidez.

Aldeek, geroan, eman litekeen laudoa bere osotasunean onartzeko eta betetzeko konpromisoa hartzen dute. Arbitrajea Bilbon egingo da gaztelania izango da hizkuntza. Arbitrajearen laudoa motibatua izango da behin betikoa eta bete beharrekoa izango da aldeentzat.

Arbitrajearen formalizazio judiziala egin behar izatekotan, edo sor daitezkeen bestelako gorabehera argitzeko, parte hartze judiziala eskatuko duena, aldeek hitzartzen dute Bilboko epaitegi eta auzitegien jurisdikzioa onartzea.

1.3. Kontratuaren xedea

Iragarki honek arautzen duen kontratuaren helburua karatulako 1. atalean adierazten da.

1.4. Kontratuaren iraupena

Lanak egiteko aurreikusten den iraupena iragarki honen karatulako 8. atalean zehazten dena izango da. Karatularen 12. atalean hala aurreikusten baldin bada, kontratua luza daiteke, lanak egin ahal izateko, hasierako epea aldatuz.

1.5. Kontratuaren hizkuntza

Kontratua gaztelaniaz idatziko da; hala ere, eragiketari eta zerbitzuei lotutako terminologian gaizki-ulertuak edo arazoak saihesteko, sektoreari dagozkion ingelesezko nomenklatura eta izendapena ere erabil daitezke.

2. ESLEIPENDUNAREN BETEBEHARRAK

2.1 Kontratua gauatzeko baldintzak

Esleipendunaren betebeharrak kontratuan zehazten direnak dira, aukeratuko diren enpresei eta esleipendunak bere proposamenean adierazitakoari bidaliko zaien Klausula Administratibo Berezien eta Zehaztapen Teknlkoen Agiria edo Pleguan erantsitako baldintzen arabera egingo dena.

3. LIZITAZIOAREN KLAUSULA BEREZIAK

3.1 Adjudikatzeko era eta izapidea

Kontratua adjudikatzeko era eta prozedura egiteko moduari dagokionez, iragarki honen karatulako 3. atalean adierazitako araubidearen arabera eta eran egingo da izapidea eta beste bideratze batzuk.

3.2 Dokumentazioa eta informazioa

Iragarki honen karatulako 2. atalean adierazitako lekuan kontsultatu ahal dira kontratu gaiei buruzko dokumentazio edo informazio guztia interesdunak. Lehiaketaren inguruko dokumentazioaz eta kontratuaz sor daitezkeen zalantzak Erakunde Kontratatzaileak argituko ditu. Erakunde Kontratatzaileak enpresa lizitatzaileren eskura jartzen dituen dokumentu horiek lehiaketaren xede diren eskaintzak prestatzeko baino ez dira erabiliko. Hori horrela, enpresa lizitatzailerek eta bere laguntzaileek, konpromisoa hartzen dute beste zeregin batzuetarako ez erabiltzeko dokumentazio eta informazio hori, eta era konfidentzian tratatuko dutela.

3.3 Parte hartzeko proposamenen aurkezpena eta enpresen hautaketa

3.3.1 Lekua eta epea

Enpresa lizitatzaileren eskaerak karatulako 6. atalean zehazten diren baldintzei jarraiki aurkeztuko dira.

3.3.2 Parte hartzeko proposamenei buruzko oharra

Proposamena aurkeztu ondoren, lizitatzailerek ezin izango du erretiratu, behar bezala justifikatuko den ezinbestekoa izan ezik.

Enpresa lizitatzaille bakoitzak proposamen bakarra aurkeztu ahal izango du; eta bakarka egin badu, ezin izango du aldi baterako beste enpresa batekin aurkeztu; ezta aldi baterako enpresa elkarte batean baino gehiagotan egon ere. Atal honetan azaltzen dena bete ezean, enpresak aurkeztuko dituen proposamen guztiak baztertuko dira. Enpresa lizitatzailerei eskatzen zaizkien dokumentazio notariala eta dokumentu administratiboak jatorrizkoan edo kopian zein fotokopian aurkeztu ahal izango dira.

Parte hartzeko eskaintzarik eginez gero, lizitatzailerek baldintzarik gabe onartu beharko dituzte dokumentu honetako klausula guztiak. Horretaz gain, lizitatzailerek lehiaketa honetara aurkezteko legez eskatzen diren baldintza guztiak betetzen dituztela adierazten duen ardura adierazpena sinatuko dute.

3.3.3 Parte hartzeko proposamenei edukia (A gutun-azala)

Aurkeztuko diren eskabideetan honako datu hauek idatziko dira:

- (i) Lehiaketaren izena eta hari dagokion edukia.
- (ii) Lizitatzailerearen izena eta haren ordezkaria.
- (iii) Jakinarazpenak egiteko helbidea, posta elektronikoaren helbidearekin batera,
- (iv) Telefono eta fax zenbakiak.

Dokumentazio hori adierazitako hurrenkeran aurkeztu beharko da, gutun-azal itxi batean, paperean azaleztatua edo formatu elektronikoan, karatulako 2. atalean azaltzen den helbidera igorri.

(A) gutun-azalean haxe idatziko da:

“(Kontratuaren izena)

A gutun-azala: Dokumentazio administratiboa, kaudimen tekniko eta ekonomikoa.
Lizitatzailera (...).”

Indarrean dagoen legeriari jarraiki, jatorrizko kopian edo kopia egokian, edo notarioaren aurrean behar bezala egiaztatutako jatorrizkoaren zein kopia egokiaren fotokopian honako dokumentazio hau aurkeztuko da:

(i) Lehiatzeko gaitasuna:

a) Lizitatzailleak pertsona juridikoak badira, diren lizitatzailleen jarduteko gaitasuna kreditatzeko, haien eraketa-eskritura edo aldaketakoa aurkeztu behar dute. Eskritura horrek merkataritza-erregistroan inskribatuta egon beharko du, baldin eta hari aplikagarri zaion merkataritza-legegiak hala eskatzen badu. Hala ez balitz, jarduteko gaitasuna kreditatzeko, eraketaren eskritura edo agiria, estatutuak edo sorrera-egintza aurkeztu beharko dituzte. Bertan, jarduera arautzeko arauak agertu beharko dira, eta behar bezala inskribatuta egon beharko dira kasuan kasuko erregistro publikoan.

Espainiarrak ez diren Europar Batasuneko herrialdeetako enpresaburuak badira, ordea, estatu bakoitzaren legediak hala eskatzen badu, merkataritza edo lanbide erregistroan inskribatuta daudela kreditatu beharko dute. Gainerako enpresaburu atzeritarrek euren herrialdeek Espainian edo dagokion beste estatu batean duten misio diplomatiko iraunkorrak edo kontsul-etxeak emandako txostena aurkeztu behar dute, enpresaren helbidearen arabera.

b) Enpresaburua bakarka aurkezten baldin bada, parte hartzeko eskabidea edo eskaintza sinatzen duen pertsonaren Nortasun Agiri Nazionala espainiarra bada. Atzerriko pertsona fisikoen kasuan, pasaportea edo indarreko agiri baliokidea aurkeztu beharra dago.

(ii) Ahalmena:

Lizitatzaillearen ordezkariaren identitatea egiaztatzen duen dokumentuaren fotokopia aurkeztuko da (NANA espainiarrentzat eta pasaportea edo indarreko agiri baliokidea atzeritarrentzat). Horretaz gainera, haren aldeko nahiko ahalmena zuzenbidean, merkataritza-erregistroan alta emanda dagoela ziurtatzen duen dokumentua, ordezkatzeko duen pertsonaren izenean jarduteko baimentzen duena.

(iii) Lehiatzeko debekurik ez duen ardura adierazpena:

Ardura adierazpena sinatuko da, lizitatzailleak administrazio publikoekin kontratatzeke debekurik ez duena adierazteko, Sektore Publikoko Kontratuen Testu Bateginaren Legearen 60.1. artikulua arabera (31/2007 Legearen hirugarren xedapen gehigarria). Horretarako, dokumentu honetako **II. eranskinean** azaltzen den eredia behar bezala beteko da.

Ardura adierazpen horretan, berriaz azaldu beharko dute egunean betetzen dituztela zerga-betebeharrak eta gizarte-segurantzarekikoak, indarrean dauden arau eta legeei jarraiki. Eskakizun horiei lotutako justifikazio akreditatiboa adjudikazioaren aurretik aurkeztu beharra baztertu gabe, betiere adjudikazioa haren aldeko enpresaburuak aurkeztu beharko du.

(iv) Kaudimen ekonomiko-finantzarioa eta tekniko:

- Lizitatzailleek duten kaudimen ekonomiko-finantzarioa honako dokumentu hauen bidez egiaztatuko dira:
 - 2015eko ekitaldiari dagozkion urteko kontuak.
 - Negozio-bolumenaz adierazpena.
- Lizitatzailleek **kaudimen tekniko**a frogatu beharko dute, honako bide hauen bitartez:
 - Burututako proiektu integratuak (azken 5 urteotan).

- Lizitatzailleek identifikatu edo azaldu beharko dute I. eranskinean prestutasuna, eta, hala badagokio, dituzten **giza baliabideak eta bitarteko materialak** kontratua gauzatzeko, eta horiek haienak diren edo azpikontratatuak.

(v) Aldi baterako enpresen elkarteak:

Lizitazioan parte hartzeko, zenbait enpresarik aldi baterako enpresa-elkartea eratzen badute, enpresa bakoitzak bere gaitasuna eta kaudimena egiaztatu beharko ditu, Lehiaketa honetako aurreko puntuetan adierazitakoaren arabera, karatulan besterik esaten ez bada. Gainera, III. eranskinaren ereduaren arabera, honako datu hauek emango dira dokumentu pribatuan:

- a) Enpresen elkartea osatzen duten pertsonen izenak eta zirkunstantziak.
- b) Enpresa elkartean bakoitzak duen parte hartzea.
- c) Haien guztien izenean ordezkari izango duen pertsona edo erakundea, jabetzaren aurrean, kontratua indarrean dagoen bitartean, Erakunde Kontratatzaillearen aurrean arduraduna izanik.

Lizitazioa aldi baterako enpresa elkarte bati esleituko balitzaio, Erakunde Kontratatzaillearen aurrean egiaztatu beharko lukete haren eraketa eskritura publikoaz.

(vi) Lizitatzaillearen oinarritzko datuak:

Lizitatzailleek **IV. eranskina** behar bezala beteta aurkeztu beharko dute.

(vii) Enpresa atzerritarrek

Enpresaburu atzerritarrek dokumentazio orokorra aldatu edo ordezkatu ahal izango dute, (i) (ii) (iii) eta (v) ataletan adierazten dena, eta haren ordezkari bat aurkeztu, kontratazioaz diharduen Europako dokumentu bakarraren formulario normalizatuaren arabera (DEUC, 2016ko urtarrilaren 5eko Batzordearen (UE) 2016/7 Erregelamenduaren bidez onartua).

Estatuko Kontratazio Administratiboaren Aholku Batzordearen webgunean (<http://www.minhap.gob.es/es-ES/Servicios/Contratacion/Junta%20Consultiva%20de%20Contratacion%20Administrativa/Paginas/default.aspx>) jarraibideak eta gomendioak daude behar bezala betetzeko.

Nolanahi ere den, kontratua esleituko duen lizitatzailleak (i) (ii) (iii) eta (v) ataletan adierazten diren dokumentuak aurkeztu beharko ditu, esleipena egin aurretik. Aurrekoa gorabehera, Erakunde Kontratatzailleak dokumentazioaren atal batzuk edo dokumentazio osoa eska diezaike lizitatzailleei prozeduraren edozein unetan, era egokian garatzeko beharrezkotzat jotzen badu. .

Euskal Autonomia Erkidegoan diharduten enpresek Lizitatzaillearen Erregistro Ofizialean eta Estatuko Enpresa Saillkatuan izena emana badute, (i) eta (ii) ataletan adierazten diren zirkunstantziak egiaztatzeko, nahikoa izango dute erregistroaren egiaztagiria aurkeztea edo saillkatzeko ziurtagiri erkidea. Horrekin batera, lizitatzaillearen ardura-adierazpena aurkeztuko da, ziurtagirian azaltzen diren zirkunstantzietan aldaketarik ez dela izan adieraziz.

3.3.4 Lehiaketan parte hartzera gonbidatuko diren enpresen arteko hautaketa

Erakunde Kontratatzailleak akta bat egingo du, eta bertan parte hartzeko eskaerak azaltzearekin batera, balioespenak adieraziko ditu, iragarki honen karatulako 11. atalean zehazten diren aukeraketa irizpideen arabera. Horren ondoren, Erakunde Kontratatzailleak enpresei jakinaraziko die (gutxienez hiru, baldin badira) hautatuak izan direla, eta gonbita egingo die proposamenak aurkez ditzaten aurreikusitako epeen barruan, lehiaketa arautzen duten Klausula Administratibo Berezien eta Zehaztapan Teknikoen Plegu edo Agiriarekin bat etorritz. Horren guztiaren berri helaraziko die 2016ko abenduaren 13tik aurrera.

3. 4 Proposamenak baztertzeko zioak

Parte hartzeko eskaerak lehiaketatik kanpo geratuko dira, betiere Erakunde Kontratatzaileak behar bezala arrazoitu eta gero, honako egoera honetan leudekeen proposamenak:

- i. Dokumentazioa epez kanpo aurkeztea.
- ii. Agiri honetan eskatutako kaudimen ekonomikoa, finantzarioa, teknikoa edo gaitasun profesionala ez aurkeztea.
- iii. Parte hartzeko eskaera bat baino gehiago aurkeztea, bakarka edo beste enpresa lizitatzailerik batzuekin batera.
- iv. Agiri edo dokumentu honetan ezartzen diren baldintzak ez betetzea.

Baztertuko diren eskaerak dagokion aktan jaso edo idatziko dira, baztertzeko zioak azalduz.

4. BESTE DATU INTERESGARRI BATZUK

4.1 Jakinarazpenak

Edozein bitarteko erabiliko da jakinarazpenak bidaltzeko, hartzaileak jakinarazpena jaso duela egiaztatzen duen bitartekoa izanik, baita posta elektronikoz ere, lizitatzailerik **IV. eranskina** betetzean hala adierazten badute.

4.2 Epeak

Kontrakoa adierazi ezean, dokumentu honetan azaltzen diren epe guztiak egun naturalei dagozkie.

4.3 Publizitatearen gastuak

Lehiaketa honi lotutako publizitate gastu guztiak (hala badagokio, egunkarrietan argitaratuko diren iragarkiak barne), enpresa esleipendunak ordainduko ditu, Agiri honen karatularen **9. atalean** hala adierazten denean.

Gastu horiek atal horretan zehaztuko den gehieneko zenbatekoa izango dute eta Erakunde Kontratatzaileak enpresa esleipendunari fakturatuko dizkio, kontratua formalizatu aurretik.

I. ERANSKINA

GENERAL SERVICES	SHESA	CONTRACTOR	
		OWN SERVICE	SUBCONTRACTED
Permitting and regulatory communications	X		
Surface Engineering & Civil Works	X		
Well Engineering and Supervision			
Communications and data transmission	X		
Road Logistics base - field	X		
Medivac-Ambulance			
Diesel Supply	X		
Water Supply	X		
Offsite Transport drilling cuttings and fluids waste disposal	X		
Domestic waste handling and disposal	X		
Civil, wellsite construction	X		
Civil, access roads	X		
Security Services	X		
Storage Yard, Warehousing			
RIG	SHESA	OWN SERVICE	SUBCONTRACTED
Drilling RIG & Equipment			
Catering			
Water Tanks & Fuel Storage			
Wellsite Logistics, crane & forklift			
SERVICES	SHESA	OWN SERVICE	SUBCONTRACTED
Wellsite Geologist	X		
Mud Logging: Equipment & Services			
Well Control Services			
Directional Drilling, MWD, LWD			
Directional Survey (gyro, multishot)			
Drilling Tools rental: BHA, Motors..etc			
Drilling & Completion Fluids: Equipment & Services			
Solids Control: Equipment & Services			
Wellsite Waste Management: Equipment & Services			
Cementing: Equipments & Services			
MPD: Equipment & Services			
Pressure Testing, Packers, Bridge Plugs, Cement retainer			
Tubulars Inspection, Handling & Running			
Coring: Equipment, Materials and Services			
Fishing, Milling and Cutting			
Wellhead & XMT Installation & test			
Liner Hangers: R.Tools & Services			
Wire Line Logging Services			
Well Testing (DST and Surface Equipment)			
Completion Tools & Services			
Perforating Services			
Slickline			
Coiled Tubing Unit.			
PROCUREMENT & ASSOCIATED SERVICES	SHESA	OWN SERVICE	SUBCONTRACTED
Drilling Bits			
Casing, Tubing, Pup Joints, X-Overs..etc			
Casing Accessories: Stabilizers, F.Shoe, F Collars.. Etc			
Cementing: Materials & Products			
Drilling Mud & Completion Fluid Products			
Well Head & XMT			
Well Head Control Panel (XMT)			
Liner Hanger: Equipment			
Completion Equipment: SCSSV,SSV,Nipples, Packer,C.Line...			
Perforating Guns and Charges			
OTHERS	SHESA	OWN SERVICE	SUBCONTRACTED

II. ERANSKINA
LIZITATZAILEAREN ARDURA ADIERAZPENA, ADMINISTRAZIO PUBLIKO EKIN
KONTRATATZEKO DEBEKURIK EZ DUELA EGIAZTATZEKO

Izen-abizenak:

Nortasun Agiri Nazionalaren zenbakia:

Ordezkatzen duen enpresa:

Enpresaren Identifikazio Fiskaleko Kodea:

Enpresaren bulegoen helbidea:

.....

ADIERAZTEN DUT: Urriaren 30eko 31/2007 Legearen Hirugarren Xedapen Gehigarriaren arabera, ur, energia garraio eta posta zerbitzuen alorretako kontratazio prozedurez diharduena, egiaztatzen dut ez nik, ez ordezkatzen dudana merkataritza-sozietateak ez dugula Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 60. eta 61. artikuluetan araututako kontratatze debekurik. Halaber, indarrean dauden xedapenekin bat etorriz, egiaztatzen dut enpresak egunean betetzen dituela zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak. Hori guztia egiaztatzen duten agiriak eta dokumentuak aurkezteko konpromisoa hartzen dut kontratua formalizatu baino lehen, horren esleipenduna izango banaiz.

20XXko aren (e)an
(Enpresaren izena/lizitatzaila)
Ahalordez

III. ERANSKINA ALDI BATERAKO ENPRESA ERATZEKO KONPROMISOA

Alde batetik,..... jaunak/andreak, zk.ko NAN duenak,.....ren ordezkartzan (IFK.....,sozietate helbidea:, telefonoa....., faxa.....

Bestetik,..... jaunak/andreak, zk.ko NAN duenak,.....ren ordezkartzan (IFK.....,sozietate helbidea:, tel.efonoa....., faxa.....

ADIERAZTEN DUTE

- I. Ordezkartutako enpresek [...] lehiaketan batera eta bat eginik parte hartzeko konpromiso hartzen dutela, eta esleipendunak izanez gero, [...] izeneko aldi baterako enpresa eratzera obligatzen direla.
- II. Aldi baterako enpresa osatuko luketen enpresa bakoitzaren partaidetza hauxe izango litzatekeela:
 - [...]
 - [...]
- III. Kontratazio-organoaren aurrean ordezkartzeari begira, hau izenpetzen dutenek hauxe aukeratu dutela:..... jauna/andrea, adinez nagusia,,.....zk.ko NAN duena,.....kalea, zk.an bizi dena, telefonoa.....eta faxa....., eta beraz, ABE edo UTEren ordezkartitza osoa izango duela.

.....(e)n, 20[...]koaren ...(e)an

[...]

[...]

Ahalordez

Ahalordez

IV. ERANSKINA
ENPRESA LIZITATZAILEAREN OINARRIZKO DATUAK

Enpresa lizitatzaillearen izena	
IFK / IFZ Jarduera nagusia	
Helbide soziala	Zentrala: Bulegoak EAEn:
Harremanetarako	Harremanetarako pertsona: Helbidea: Tel.: Faxa: e-mail:
Langile-kopurua	Guztira: EAEn:
Negozio bolumena	Guztira: EAEn:
Akziodunen edo enpresa taldearen izena Kontratisten Erregistro Ofizialaren Ziurtagiria (bai/ez) Kudeaketa sistemen ziurtapena (ISO, UNE edo baliokideak)	